

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

1092

AGINDUA, 2018ko otsailaren 20koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2017ko eta 2018ko laguntzak emateko.

Agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak erregulatzen dituen azaroaren 19ko 447/2013 Dekretua 2013ko azaroaren 28ko EHAA n argitaratu zen, 227. zenbakian, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Dekretu horretan erregulatzen dira gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonentzako laguntzak, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak bete ditzaten, tratamenduok finantzaketa publikoaren xede direnean betiere.

Dekretu hori aldatu zen, azaroaren 14ko 247/2017 Dekretuaren bidez (azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.), dekretuaren 3. artikuluan ezartzen diren laguntzen onuradunen taldea zabaltzeko, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuaren atal batzuk aldatzeko, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak erregulatzen dituen arazoaren 19ko 447/2013 Dekretuaren 2.1 artikuluan ezarritakora egokitu dadin eta Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak jarrai dezan aipatu laguntzak kudeatzeko eskumenak izaten.

Aipatutako 447/2013 Dekretuak dioenez, Osasuneko sailburuaren esku egongo da deialdia egitea. Zehatz esanda, 2.2 artikulua araberak, «Osasuneko sailburuaren esku egongo da laguntzen deialdia egitea, honako hauek adieraziko dituen agindua emanez: laguntzak zehazteko aldiak, izapideei (zuzenekoei zein elektronikoei) buruzko zehaztapenak, eskaerak aurkezteko epea, tokia eta modua, laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak, bai eta horiek emateko baldintzak egiaztatzeko eskatutako agiriak eta eskaera-eredua ere; hori guztia dekretu honetan jasotako arauak garatuz eta aplikatuz».

Aipatu artikulua betetzearen, 2013ko abenduaren 23ko Agindua onartu zen (2013-12-31ko EHAA, 248. zk.), zeinarekin deialdia egiten baitzen agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2013. eta 2014. urteetarako laguntzak emateko. Aipatutako deialdian, 2013ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra eta 2014ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era egindako gastuetarako laguntzak ematea erregulatzen da.

Era berean, 2015eko urtarrilaren 21ean Osasuneko sailburuaren agindu bat onartu zen, zeinarekin deialdia egiten baitzen agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2014. eta 2015. urteetarako laguntzak emateko (2015-01-27ko EHAA, 17. zk.). Aipatu deialdian, 2014ko abenduaren 1etik 31ra eta 2015eko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era egindako gastuetarako laguntzak ematea erregulatzen da.

Era berean, 2015eko abenduaren 10ean Osasuneko sailburuaren agindu bat onartu zen, zeinarekin deialdia egiten baitzen agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2015. eta 2016. urteetarako laguntzak emateko (2015-12-23ko EHAA, 244. zk.). Aipatutako deialdian, 2015eko abenduaren 1etik 31ra eta 2016ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era egindako gastuetarako laguntzak ematea erregulatzen da.

Gero, Osasuneko sailburuaren agindu bat onartu zen, 2017ko otsailaren 21ean, zeinarekin deialdia egiten baitzen agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2016. eta 2017. urteetarako laguntzak emateko (2017-03-1eko EHAA, 42. zk.). Aipatutako deialdian, 2016ko abenduaren 1etik 31ra eta 2017ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era egindako gastuetarako laguntzak ematea erregulatzen da.

Eta agindu honen bitartez, beste deialdi bat egiten da, 2017-2018ko epealdiari dagokiona.

Agindu honetan kontuan hartzen da zer ondorio izan ditzakeen Konstituzio Auzitegiaren 2017ko azaroaren 16ko 134/2017 epaiak onuradun izan daitezkeen batzuek eskatutako laguntzak zehazterakoan. Epai horrek 4540-2012 eskumen-gatazka positiboa ebazten du, Espainiako Gobernuak sustatua Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuko agindu batzuei dagokienez. Horregatik, Agindu honek xedapen iragankor bakarria ezartzen du, aipaturiko ondorio horiek aintzat hartzen dituena.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren eremua eta xedea.

Hau da agindu honen xedea: Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketanak, gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonak bete ditzaten errazteko laguntzen deialdia egitea. Laguntza horiek 2017ko abenduaren 1etik 31rako eta 2018ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30erako tarteetarako dira.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik datoz, eta horien kopurua sei milioi eta seihun eta hogeita bost mila eurokoa da (6.625.000).

2.– Deialdi honetan guztira emango diren laguntzen zenbatekoak ez du diru-izendapen hori gaindituko, edo, baldin eta, indarrean dauden legeen arabera, aurrekontuetan aldaketak onartzen badira, ez du zenbateko hori eguneratuta sortzen den emaitza gaindituko.

3.– Halaber, deialdi honetarako izendatutako kreditua eta hori eguneratzearen ondoriozkoa agortzen bada; orduan, zirkunstantzia horri publikitate ematearren, Osasuneko sailburuordeak ebazpen bat emango du, zeinetan zehaztuko baita zein egunetan agortu zen kreditua, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; guztia ere, azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. artikulua.– Laguntzen onuradunak.

1.– Gaixotasun- eta beharizan-egoera objektiboan dauden pertsonak eskatu ahal izango dituzte laguntzak, betiere betetzen badituzte laguntza horien onuraduna izateko azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritako baldintzak (dekretu horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira), eta laguntza horien xede den gastua deialdi honetan zehaztutako aldian egin badute. Zehatz esanda, hau da gastu hori:

a) Gizarte Segurantzaren pentsiodun gisa aseguraturata egonik, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun txartelaren titularrak badira.

b) Langabeziaren legezko egoeran egonik, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun txartelaren titularrak badira.

c) Aurreko ataletan aipatutako aseguratuen onuradunak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun txartelaren titularrak badira.

d) Beren laneko errentak osatzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun txartelaren titularrak badira.

e) Estatuko Osasun Sistemako aseguru edo onuradun ez izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Estatuko Osasun Sistemaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren aplikazio-eremu subjektiboan sartzen badira.

2.– Zehapen administratibo edo penala izateagatik diru-laguntzak eta laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten pertsonak ezin izango dute lehiaketan parte hartu jasotako zigorrak ezarritako aldiran. Era berean, ez dute parte hartzerik izango horretarako ezgaitzen dituen debeku legalen bat dutenek; horretan barne direlarik Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatzearen ondoriozkoak.

3.– Pertsona onuradunei laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaitu egin beharko dira itzultze- edo zehapen-prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko diru-laguntzen esparruan hasitako eta izapideetan dauden prozedurak alegia.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu mediko bat betetzeko, 2017ko abenduaren 1etik abenduaren 31rako eta 2018ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30erako tartean pagatu behar izan dituzten zenbatekoak itzuliko zaizkie onuradunei, betiere finantzaketa publikoa jaso dezaketen tratamendu farmakologikoei, eta efektu eta osagarriei dagokienez.

2.– Halaber, itzuli ahal izango dira –2018ko epealdian bertan– ordaindu behar diren zenbatekoak, hain justu ere Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu mediko bat betetzearen ondoriozkoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketen produktu dietetikoei dagokienez.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikokoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte; hartarako, administrazioan onartutako sinadura elektronikoko sistemen bitartez identifikatuko dira.

2.– Izapidetze elektronikoa honako hauen bidez dago erregulatutik: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; eta Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa-PLATEA- ezarzen duen dokumentua onartzen duena.

3.– Eskabidearen ondorengo izapideak eta izapideen jarraipena bide elektronikoen bidez egin ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzaren <http://www.euskadi.net/misgestiones> web-orriaren bidez, hain zuzen ere. <http://www.euskadi.eus/misgestiones>

6. artikulua.– Izapidetze erraztua.

1.– Oro har, izapidetze erraztuaren bitartez kudeatuko dira deialdi honetan araututako laguntzak, betiere organo kudeatzaileak eskabideak ebazteko behar besteko informazio badu, bai pertsona onuradun izatearen kondizioaz, bai laguntzaren xede den gastua egiteaz, eta eskatzaileek baimen espresua eman badute aipatutako datu horiek egiaztatzeko.

2.– Beraz, honako pertsona hauek erabili ahal izango dute izapidetze erraztua:

a) Gizarte Segurantzaren pentsiodun gisa aseguraturik daudenak, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun txartelaren titularrak eta beren onuradunak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz, hurrengo artikuluan araututa dagoena.

b) Langabeziaren legezko egoeran daudenak, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun txartelaren titularrak eta beren onuradunak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz, hurrengo artikuluan erregulatuta dagoena.

c) Beren laneko errentak osatzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz, hurrengo artikuluan erregulatuta dagoena.

d) Estatuko Osasun Sistemako aseguratu edo onuradun ez izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Estatuko Osasun Sistemaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren aplikazio subjektiboaren arloan sartzen badira.

3.– Egoera horretan dauden pertsonen I. eranskinetako eskabide-eredua bete beharko dute. Eskabide horretan, Administrazioari baimena emango zaio, eskatzaileak adierazten duen kontuan ordainketa egiteko. Horretarako, lehenago egiaztatu beharko da, batetik, onuraduna nor den, eta, bestetik, laguntzaren helbururako gastua egin dela. Eskabidea Osasun Saileko lurralde-ordetzakartzetan eskuratu ahal izango da, bai eta Osakidetza zentroetan, Zuzenean izeneko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan ere: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>

7. artikulua.– Ohiko izapidetzea.

1.– Izapidetze errazturik egiterik ez badago, ohiko izapidetzearen bidez kudeatuko dira deialdi honetan erregulatutako laguntzak, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Hau da:

a) Pertsona eskatzaileak Administrazioari berariazko baimenik ematen ez badio datuak egiaztatzeko.

b) Diru-laguntzaren xedea den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada.

c) Baldin eta agindu honetako bigarren xedapen gehigarrian zehaztutako pertsonen arlokoa bada eskabideak izapidetzea.

2.– Kasu horretan, interesdunek, banako osasun-txartelaren bidez edo Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak jasotzeko bidea ematen duen dokumentu identifikatzailearen bidez nortzuk diren egiaztatu ondoren, eskabidea aurkeztuko dute, agindu honetako II. eranskineko eredu behar bezala betez. Eredue horri honako dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

a) Onuradun-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Tratamendu aktiboaren orria edo errezetaren paperezko kopia, laguntzaren xede diren tratamendu medikoen preskripzioak jasotzen dituenak.

c) Eskuratutako produktua pagatu izana justifikatzeko agiriak, non jasotzen baitira jaso dituzten produktuen identifikazio-datuak eta eskatzaileak egindako ekarpenak, tokatzen den epealdian diruz lagundutako gastuei dagokienez.

Paperezko euskarrian edo euskarri elektronikoa (pdf formatuan) aurkeztu ahal izango da dokumentazioa.

3.– Eskabide-eredua Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan eskuratu ahal izango da, bai eta Osakidetza zentroetan, Zuzenean izeneko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan eta egoitza elektronikoa: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>

8. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Diru-laguntzetarako eskabide-inprimakiak ez badira guztiz betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazioa aurkeztzen, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio hutsegitea konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea ukatuztat joko dela adieraziko zaio. Administrazioak eskabide horiei buruzko berariazko ebazpen bat eman eta jakinarazi beharko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua.– Izapidetze-hizkuntza.

Pertsona eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta eskatutako gainontzeko dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduketetan eta prozeduran zehar, pertsona eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, horixe baitago ezarria azaroaren 24ko 10/1982 Legearen, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrikoa dena, 6.1 artikuluan.

10. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Deialdi osorako izapidetze-eskabide bat aurkeztea aski izango dute pertsona interesdunek, eta hori egin ahal izango dute edozein unetan, agindu hau ondorioak sortzen hasten denetik 2018ko abenduaren 10era bitarte.

2.– Izapidetze arruntari dagokionez, deialdi honetan pertsona interesdunek bi eskabide aurkeztu ahal izango dituzte gehienez ere; lehena, 2018ko ekainaren 10era arte, eta bigarrena, 2018ko abenduaren 10era arte, lehenengoan justifikatu gabeko gastuei dagokienez.

3.– Eskabideak Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dira, bai eta Osakidetza osasun-zentroetan, Zuzenean izeneko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan ere. Halaber, eskabideak bitarteko

elektronikoen bidez izapidetzeko aukera dago, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bidez: www.euskadi.net/egoitza_elektronikoa/iragarki-taula.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpenaren bidez, ebatziko da pertsona onuradunei laguntzak ematen zaizkien ala ez, edo ukatzen zaizkien ala ez, betiere organo kudeatzailearen proposamena delarik; eta ebatzitako hori jakinarazi egin beharko da, hain justu ere Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa paratuaz: www.euskadi.net/egoitza_elektronikoa/iragarki-taula; eta bai Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan eta osasun-zentroetan ere; guztiarekin ere, «izapide administratiboak»-«laguntzak» atalean, egoitza elektronikoa honetan: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>

2.– Planteatzen den izapidetze-era edozein delarik ere, laguntzaren helburuari doakion gastua zehaztu ostean, laguntzak esleitzeko ebazpenak emango dira, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren bidez, bat 2018ko uztailaren lehen hamabostaldiaren barruan, eta bestea 2018ko abenduaren bigarren hamabostaldiaren barruan, hurrenez hurren 2017ko abenduaren 1etik 2018ko ekainaren 10era bitartean egindako gastuengatiko laguntzetarako, eta 2018ko ekainaren 11tik azaroaren 30era bitartean egindako gastuengatiko laguntzetarako. Edozelan ere, izapidetze arruntean formulatutako eskabideen gaineko ebazpenek beharko dute izan koherenteak eskabideotan jasotako eskabide zehatzarekiko.

3.– Goiko horren aurka egin gabe, izapidetze-era edozein delarik ere, 2018ko ekainaren 10az geroztik egiten bada eskabidea, laguntzak emateko ebazpen bat bakarrik emango da, 2018ko abenduaren bigarren hamabostaldiaren barruan eman ere, diru-laguntzari dagokien aldiaren zehar pertsona onuradunek egindako gastuei dagokienez.

12. artikulua.– Ordaintzeko modua.

Laguntzak emateko ebazpena argitarazten denetik harako bi hilabeteko epearen barruan, pagatuko zaizkie emandako laguntzak pertsona onuradunei.

13. artikulua.– Errekurtsoak.

Laguntzak baiesteko edo ezesteko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osasuneko sailburuordeari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako era eta epeetan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetan ezartzen den 18.000 eurotik beherako urteko errentetako diru-sarreraren muga, honako kopuru hauen arabera neurtuko da: 2017ko abenduan egindako gastuei dagokienez, 2016ko ekitaldian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren –likidatuaren– aitorpeneko aurrezpen eta likidazio-oinarri orokorraren laukian kontsignatutako zenbatekoa; 2018ko ekitaldian egindako gastuei dagokienez, 2017ko ekitaldian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren –likidatuaren– aitorpeneko aurrezpen eta likidazio-oinarri orokorraren laukian kontsignatutako zenbatekoa.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako pertsonak II. eranskineko ereduarekin bete beharko dute bere eskabidea izapidetzeko, ohiko izapidetzeari jarraikiz. Horretarako, MUFACE, MUGEJU edo ISFASek kudeatutako Gizarte Segurantzako araubide berezien titularrak izan beharko dute eta 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pentsiodun (klase pasiboak) ere bai, betiere horien

bermatzailea Estatuko Osasun Sistema bada; beren onuradunak ere bete beharko dute eredu hori, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta badaude, eta errekonozituta badaude dekretu honen bigarren xedapen gehigarriaren 1. eta 2. paragrafoetan: 47/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa.

2.– Eskabidearekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

a) MUFACE, MUGEJU edo ISFASe kudeatutako Gizarte Segurantzako araubide berezietan afiliaturik egotea eta pentsiodun-izaera (Klase Pasiboak eta Erregimen Orokorra) edo haietako pentsionistaren baten onuradun izatea egiaztatzen duen dokumentu ofizialaren kopia.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

c) PFEZren aitortpenaren kopia edo diru-sarrera gutxi izateagatik errenta-aitortpena egin beharrik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Tratamendu aktiboaren orria edo errezetaren paperezko kopia, laguntzaren xede diren tratamendu medikoen preskripzioak dakartzana.

e) Erositako produktuak ordaindu izana justifikatzeko agiriak, non adierazita dauden eska-tzaileak dagokion aldian erositako produktuak eta egindako ekarpenak, elektronikoki izapidetu ez diren edo Estatuko Osasun Sistemako langileek agindu dituzten gastuei –diruz lagun daitezkeenei– dagokienez.

3.– Kasu horietan, eskabideak 10. artikuluan aipatutako epean eta tokietan aurkeztuko dira.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Agindu honen 3.1.e) artikuluan zehaztutako onuradunentzako laguntzak soil-soilik ordainduko dira 2017ko abenduaren 20a baino lehen egindako gastuetarako, data horretan argitaratu baitzen Konstituzio Auzitegiaren 2017ko azaroaren 16ko 134/2017 epaia, 4540-2012 eskumen-gatazka positiboa ebazten duena, Espainiako Gobernuak sustatua Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuko agindu batzuei dagokienez (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2017-12-20, 308. zk.).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, honako arau hauetan ezarritakoa aplikatu beharko da: diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta beraren erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartua; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua; 447/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek 2018ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 20a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

2018ko martxoaren 1a, osteguna

Sarrera-erregistroko zenbakia

I. eranskina

Barra-kodea

2018

IZAPIDETZE
ERRAZTUA

EUSKADIKO OSASUN SISTEMAKO LANGILEEK AGINDUTAKO TRATAMENDU MEDIKOAK, FINANTZAKETA PUBLIKOAREN XEDE DIRENAK, BETETZEA ERRAZTEKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

Eskatzailearen datu pertsonalak:Izena: _____ Tel.:

Abizenak: _____

NAN: OTI kodea: ***Ordezkarria**

- Ordezkaritza laguntzaren izapidetzea egiteko baino ez bada, nahikoa da titularrak eta ordezkariak eskabide hau sinatzea.
- Laguntzaren eskatzailea legez ezgaitua izan bada, eskabidea tutoreak, kuradoreak edo legezko ordezkariak sinatuko du; epai judizialaren edo notario-ahalordearen bidez egiaztatuko du ordezkaritza, eta eskabideari gehituko dio. Era berean, ordezkariak erakunde baten izenean aurkeztuko balu eskabidea, dagokion notario-ahalordea gehitu beharko luke.
- Laguntzaren eskatzailea emantzipatu gabeko adingabekoa bada, aitak edo amak sinatuko du eskabidea, eta eskabideari familiako liburuaren kopia gehituko diote.

Ordezkariaren izena edota erakundearen izena: _____

Abizenak: _____

NAN: Tel.: **Bankuko datuak (X jarri dagokion aukerari)**

1- Aurreko deialdi batean laguntzen onuraduna izan nintzen, eta **orduan eman nuen banku-kontuan ordaintzea eskatzen dut.**

2- Osasun Sailari eskatzen diot aurrerantzean nire banku-kontu honetan ordaindu diezazkidala agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak (**derrigorrezkoa da titularra eta kontu-zenbakia agertzen diren orriaren kopia eskabideari gehitzea**):

IBAN: Bankua edo Kutxa: Sukurtsala: KD: Kontu-zenbakia:

2018ko martxoaren 1a, osteguna

Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea

Helbidea: _____ Zk.: _____ Pisua: _____

Posta-kodea: Udalerria: _____

Lurralde historikoa: _____ Herrialdea: _____

Posta elektronikoa: _____

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak

- | |
|--|
| <input type="checkbox"/> Ordezkarri-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa, beharrezkoa bada.
<input type="checkbox"/> Titularra eta kontu-zenbakia agertzen diren orriaren kopia (bankuko datuak atalean 2. aukera hautatu bada). |
|--|

Baimenak

Deialdi honen erakunde kudeatzaileari baimena ematen diot administrazio eskudunean egiaztatu edo ziurtatu ditzatela honako datu hauek, bai bide elektronikoa, bai eskura dauden bideak erabiliz:

- Pentsiodun gisa aseguruaren edota aseguruaren onuradunaren egoerei buruzko datuak
- Diru-sarrerei buruzko datuak (PFEZ aitortpena edo halakorik egin beharrik ez duela egiaztatzen duen agiria)
- Langabezia-egoera legalari eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeari buruzko datuak
- Laguntzaren xede den gastua aldizka egiteari buruzko datuak
- Estatuko Osasun Sistemako aseguruak edo onuradunak ez diren pertsonen kasuan, osasun-asistentzia aitortzeari buruzko datuak (ekainaren 26ko 114/2012 Dekretua)

Ardurapeko aitortpenak*Bateragarritasun-aitortpenak*

Adierazten dut jasotzen ari naizela herri-administrazioaren edo erakunde pribaturen batek emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabidea, helburu bera duena.

EZ BAI Zenbatekoa _____ €. Zer laguntza edo diru-sarrera _____

Beste aitortpen batzuk

Honako hau adierazten dut:

- Ez dudala jaso inolako zehapen administratiborik edo penalik, laguntzak edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera ekintzen didanik
- Ez daukadala debekurik, diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzen uzten ez didanik, batez ere sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak kontuan harturik
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean ez nagoela
- Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak betetzen ditudala
- Benetakoak direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan agertzen diren datuak

Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jakizu zuk ematen dituzun datuak "Betetzeko laguntzak" izeneko fitxategi automatizatuan sartuko direla. Fitxategi horren helburua azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuan araututako laguntzak kudeatzea da. Dekretu horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira.

Fitxategia Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ardurapean dago, eta zuzendaritza horren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil daitezke, honako helbide honetan: Donostia kalea 1. Vitoria-Gasteiz 01010.

Emandako datuak ezin zaizkie utzi hirugarren pertsonari edo antolakundeei, eta Osasun Sailak baino ezin izango du erabili eskatzaileei emandako laguntzen kudeaketa.

_____, 2018ko _____ aren ____ (a)

Sinadura: _____ (eskatzailea) Sinadura: _____ (ordezkaria*)

2018ko martxoaren 1a, osteguna

Sarrera-erregistroko zenbakia

II. eranskina

Barra-kodea

2018

IZAPIDETZE
OHIKOAEUSKADIKO OSASUN SISTEMAKO LANGILEEK AGINDUTAKO TRATAMENDU MEDIKOAK,
FINANTZAKETA PUBLIKOAREN XEDE DIRENAK, BETETZEA ERRAZTEKO LAGUNTZEN
ESKABIDEA

Eskatzailearen datu pertsonalak:

Izena: _____ Tel.:

Abizenak: _____

NAN: OTI kodea:

*Ordezkaria

- Ordezkaritza laguntzaren izapidetze egiteko baino ez bada, nahikoa da titularrak eta ordezkariek eskabide hau sinatzea.
- Laguntzaren eskatzailea legez ezgaitua izan bada, eskabidea tutoreak, kuradoreak edo legezko ordezkariek sinatuko du, eta epai judizialaren edo notario-ahalordearen bidez egiaztatuko du ordezkaritza, eta eskabideari gehituko dio. Era berean, ordezkariek erakunde baten izenean aurkeztuko balu eskabidea, dagokion notario-ahalordea gehitu beharko luke.
- Laguntzaren eskatzailea emantzipatu gabeko adingabekoa bada, aitak edo amak sinatuko dute eskabidea, eta eskabideari familiako liburuaren kopia gehituko diote.

Ordezkararen izena edota erakundearen izena: _____

Abizenak: _____

NAN: Tel.:

Bankuko datuak (X jarri dagokion aukerari)

- 1- Aurreko deialdi batean laguntzen onuraduna izan nintzen, eta **orduan eman nuen banku-kontuan ordaintzea eskatzen dut.**
- 2- Osasun Sailari eskatzen diot aurrerantzean nire banku-kontu honetan ordaindu diezazkidala agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak (**derrigorrezkoa da titularra eta kontu-zenbakia agertzen diren orriaren kopia eskabideari gehitzea**):

IBAN: Bankua edo Kutxa: Sukurtsala: KD: Kontu-zenbakia:

2018ko martxoaren 1a, osteguna

Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea

Helbidea: _____ Zk.: _____ Pisua: _____

Posta-kodea: Udalerria: _____

Lurralde historikoa: _____ Herrialdea: _____

Posta elektronikoa: _____

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak

- | |
|---|
| <input type="checkbox"/> Ordezkarri-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa, beharrezkoa bada.
<input type="checkbox"/> Titularra eta banku-kontu zenbakia agertzen diren orriaren kopia (bankuko datuak atalean 2. aukera hautatu bada)
<input type="checkbox"/> Osasun Zerbitzu Publikoaren errezetak edo tratamendu aktiboaren orria.
<input type="checkbox"/> Botikaren jatorrizko tiketak edo jatorrizko faktura.
<input type="checkbox"/> (Klase pasiboak bakarrik, MUFACE, ISFAS eta MUGEJUkoak) Klase pasibo-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa, EAEko udalerriren batean erroldatuta dagoen ziurtagiria, eta 2016 eta 2017ko ekitaldietan likidatutako PFEZren aitortpenaren kopia. |
|---|

Baimenak

Deialdi honen erakunde kudeatzaileari baimena ematen diot administrazio eskudunean egiaztatu edo ziurtatu ditzatela honako datu hauek, bai bide elektronikoa, bai eskura dauden bideak erabiliz:

- Pentsiodun gisa aseguratuaren edota aseguratuaren onuradunaren egoerei buruzko datuak
- Diru-sarrerei buruzko datuak (PFEZ aitortpena edo halakorik egin beharrik ez duela egiaztatzen duen agiria)
- Langabezia-egoera legalari eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeari buruzko datuak
- Laguntzaren xede den gastua aldizka egiteari buruzko datuak
- Estatuko Osasun Sistemako aseguratuak edo onuradunak ez diren pertsonen kasuan, osasun-asistentzia aitortzeari buruzko datuak (ekainaren 26ko 114/2012 Dekretua)

Ardurapeko aitortpenak*Bateragarritasun-aitortpenak*

Adierazten dut jasotzen ari naizela herri-administrazioaren edo erakunde pribaturen batek emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabidea, helburu bera duena.

EZ BAI Zenbatekoa ___ €. Zer laguntza edo diru-sarrera _____

Beste aitortpen batzuk

Honako hau adierazten dut:

- Ez dudala jaso inolako zehapen administratiborik edo penalik, laguntzak edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera ekintzen didanik.
- Ez daukadala debekurik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzen uzten ez didanik, batez ere sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak kontuan harturik.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparuan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean ez nagoela.
- Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak betetzen ditudala.
- Benetakoak direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan agertzen diren datuak.

Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jakizu zuk ematen dituzun datuak "Betetzeko laguntzak" izeneko fitxategi automatizatuan sartuko direla. Fitxategi horren helburua azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuan araututako laguntzak kudeatzea da. Dekretu horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira.

Fitxategia Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ardurapean dago, eta zuzendaritza horren aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil daitezke, honako helbide honetan: Donostia kalea 1. Vitoria-Gasteiz 01010.

Emandako datuak ezin zaizkie utzi hirugarren pertsonari edo antolakundeei, eta Osasun Sailak baino ezin izango du erabili pertsona eskatzailei emandako laguntzen kudeaketa.

_____, 2018ko _____ aren ___ (a)

Sinadura: _____ (eskatzailea) Sinadura: _____ (ordezkaria*)